

DIRU SARRERAK

Gure enpresaren diru sarrerak txipen salmenta areagotzen den heinean hasiko dira handitzen, saltzen ditugun kopuruaren arabera izango dira, alegia. Produktuaren prezioa finkoa izango da, hau da, denda guztietan saltzeko ezarritako prezioa berdina izango da.

Hasieran ez dugu irabazi-iturririk izango, beraz, proiektua aurrera eraman ahal izateko, JIL taldeko partaide bakoitzak jarritako dirua erabiliko dugu. Lehen hilabetean erabilitako diru kopurua 15.000€-koa izango da, hau da, bost taldekidetakako bakoitzak 3.000€ jarritz. Hilabete horretan aurreikusitako 13.633,56€ko kostua estali ahal izateko erabiliko dugu dirua, gainera, 1.366,44€ edukiko ditugu soberan ustekabeko gastuetan erabiltzeko.

Gure diru sarrera bakarra txiparen salmenta izango denez, lehenengo urtean ez dugu diru kantitate askorik lortuko, izan ere, produktuaren salmenta handitzeko denbora beharko da, baina, gure produktua Espainian indarra hartzen hasten denean, enpresaren diru sarrerak areagotzen joango direla espero dugu.



Gure produktua Espainiako hiriburuetakako elektronika dendetan salduko da, 8€ tan hain zuzen ere. Beste aldetik, etekinen %15a dendak berak jasoko du, izan ere, elektronika dendak produktuaren ehuneko bat eskuratu beharko du produktua bertan saltzearen truke.

Gure kalkuloen arabera, 2.000 unitate produzitu eta salduko ditugu urtero, ondorioz, urteko diru sarrerak 163.300€ koak izango dira. Kostuak kontuan edukita, 12.117,28€ koa izango da lehen urteko etekina, ondorioz, bigarren urtean edukiko ditugu lehen irabazi errealak, lehen urteko 15.000€ko inbertsioa gaituko baitugu. Etorkizunera begira, gure produktuak arrakasta handia izango balu, estatu mailako salmenta kopurua areagotuko genuke eta Frantziara, Portugalera eta Andorrara mugituko ginateke.



JIL